bakar batean jardutea alegia, gisa horretan karguari dagozkion betebeharrak goitik behera betetzeko eragina edo urritu lezaketen jarduera pribatuak ez liratekeelarik egingo. Bigarrenez, interesdunei tratamendu berdina bermatzeko xede-uniformatzaile bat zegoen, administrazio publiko ezberdinetan sistema uniforme bat bilatzen zuena hain zuzen ere. Eta hirugarrena, eurentzat garrantzitsuena, prozesu moralizatzaile eta etsenplu emailea lortzea da. Xede honen bidez funtzionarioak herritarren aurrean eredu-emaileak izatea nahi dute, era horretan, solidaritateranzko bidea egingo delako eta bizi publikoa eta administrazioaren eraginkortasuna moralizatuko. Haren ustez, begien bistakoa da legea betetzeko dela, eta denek dakite erredundantea den zerbait: zuzenbidezko estatu batean bizi dira, eta oinarri horren baitan, lege horrek dionaren arabera jardun behar dute. Horrela, gai honi buruzko txosten juridiko bat dute, eta bertan, ez eztabaidatzeko moduan zera esaten da: proposamena zuzenbidezkoa da eta Udalbatzak duela eskumena espresuki edo nahigabe emaniko bateragarritasunak baliogabe uzteko. Horregatik, berriro eskatzen dute, mozioa onartzeko.

personal al servicio de las administraciones públicas se centra en un puesto de trabajo, respetándose únicamente el ejercicio de las actividades privadas que no puedan incidir o menoscabar el estricto cumplimiento de los deberes propios de su cargo. En segundo lugar había un propósito uniformador que busca un sistema uniforme en las distintas administraciones públicas que garantice a los interesados un tratamiento común entre ellas. Y el tercero que a ellos les parece el más importante, un proceso moralizador y ejemplificante. Este propósito alude a la necesidad de que los funcionarios den ejemplo a los ciudadanos para así avanzar hacia la solidaridad, la moralización de la vida pública y la eficacia de la administración. Continúa diciendo que es evidente que una Ley está para cumplirse y que todos conocemos algo que es redundante, que vivimos en un estado de derecho y bajo esa premisa hay que atenerse a lo que en esta Ley se establece. Tienen un informe jurídico que taxativamente dice que la propuesta que han lanzado se considera ajustada a derecho, siendo el Pleno el órgano competente para declarar la nulidad de las compatibilidades reconocidas expresa o presuntamente, no les queda mas que volver a pedir que se apruebe esta moción.

* Acosta jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan du euren ustez proposatzen denak eragin urria izango duela enpleguari dagokionez, eta are gutxiago aberastasunaren banaketa deitzen den horretan. Bere iritziz, enplegu zenbait funtzio publikoarekin bateragarriak dira, esaterako, autonomo jarduten dutenena. Ikuspuntu horretatik uste dute ez direla urratzen funtsezko eskubideak, eta horrexegatik, ekarri dute proposamen alternatiboa.

* Interviene el Sr. Acosta (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) manifestando que dudan de la escasa incidencia que pueda tener lo que se propone en la dirección de empleo y que decir en lo que se viene denominando redistribución de la riqueza. Hay empleos que son compatibles con la función pública, el trabajo de autónomo por ejemplo, desde esta perspectiva consideran que no se lesionan derechos fundamentales y por eso traen la propuesta alternativa.

* Burgos jaunak (Alkarbide) esan du berak bere egiten dituela Queralt jaunak Legearen atarikoaren inguruan emaniko azalpenak. Era berean, oinarritzat hartzen ditu txostenek diotena eta

* Interviene el Sr. Burgos (Alkarbide) diciendo que va a hacer suyas las palabras de su antecesor el Sr. Queralt, puesto que coincide plenamente en cuanto a la exposición que ha hecho del preámbulo



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

mozioaren irakurketa. Bere iritziz, garai batean emaniko bateragarritasunak ez ziren eman behar, eta puntu horretan legea zehatza da. Horregatik, berak ez du mozio alternatiboaren alde egingo.

* Peralta andreak (PP) esan du gustatuko litzaiokeela galdetzea ea zergatik ez den bateragarria udal batean eta bere kontura lanean jardutea. Berak adibide modura ipiniko luke Ospitalean (erakunde publikoa) goizez eta arratsaldez euren kontsultetan lana egiten duten medikuak. Bere irudiko, egoera horren aurrean, ezer gutxi esan liteke, eta bere taldeak mozio alternatiboaren alde egingo du. Izan ere, logikoa iruditzen zaio, Udaleko lanean eragin handiegirik izango ez duena, beti ere lanpostu publikoko eginkizunak betetzen badituzte. Horrez gain, esan du azalpenek ez dutela konbentzitu, izan ere, badagoelako jendea GKE edo tratu txarrak jasandako emakumeei laguntzen ibiltzen dena, eta berari bidezkoa iruditzen zaio horiek sektore pribatuan lana egitea.

* Ferradas jaunak (Ezker Batua-Berdeak) esan du, urrutiago joan gabe, puntu honi buruzko dokumentuetan, hots, teknikariaren txostenean, konklusioen aurreko paragrafoa irakurri ez badute, irakurtzeko gonbitea egiten du. Haren esanetan, txostenaz gain, administrazio publikoan lana egiten duten langileekiko bateraezintasun-sistema arautzen duen lege bat dago, eta, gutxienez bere taldearentzat, txostena eta Legearen gainetik errealitate soziala dago, zeinak zera esan, edo esan beharko baitzukeen: Udal honek lehenengo aurkezturiko mozioa aintzat hartu beharko zukeela. Argi eta garbi dago Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak taldeak mozio bat mahaiganeratu duela, beste osoko bilkuratan mozioa eztabaidatzea eragozten duen bitartean. Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak taldeak aurkezturiko mozioak, bote-lasterrean eta oso azaletik irakurrita, ez du aintzat

de la Ley, también va a basarse en los informes y lectura de la misma. Cree que las compatibilidades que se dieron en su día no se deberían haber dado y considera que la Ley es taxativa en ese punto, por ello no va a apoyar la moción alternativa.

* Interviene ls Sra. Peralta (PP) diciendo que le gustaría preguntar por qué no es compatible el tema de trabajar en un ayuntamiento con una situación privada de trabajo, se puede poner el caso de los médicos, que trabajan en la Residencia, que es una institución pública y por la tarde trabajan en sus consultas. Le parece que en esta situación no hay mucho que decir y su grupo va a apoyar la moción alternativa porque le parece justo y lógico. Considera además que tampoco va a inicidir muchísimo en el trabajo del ayuntamiento siempre y cuando cumplan con los deberes en el puesto de trabajo que tienen. Por lo demás, considera que la exposición panteada no le convence y que hay casos de gente que trabaja en ONGS o ayudando a mujeres maltratadas y considera lógico que trabajen en el sector privado.

* Interviene el Sr. Ferradas (Ezker Batua-Berdeak) manifestando que sin ir mas lejos, en la documentación referente a este punto, en el informe laboral de la técnico, hay un párrafo justo antes de las conclusiones, que invita a los corporativos a que lo lean si es que no lo han hecho. Aparte del informe hay una ley que regula el sistema de incompatibilidades del personal al servicio de al administración pública, y por lo menos para este grupo por encima del informe y de la Ley, hay una realidad social que dice o debería decir que este ayuntamiento debería tomar en consideración la proposición de la moción presentada en primer lugar. Evidentemente el Grupo Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak se saca una moción de la manga cuando por otro lado impide la discusión de otras mociones en el Pleno. La moción que presenta el Grupo Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak así a



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

hartzen teknikariak eginiko txostena, Legea, eta, ezta, errealitate soziala bera ere.

* Peña andreak (EAJ/PNV) esan du, bere iritziz, bateraezintasun kasuak eta ingurukoak, Queralt jaunak esan duen moduan, Legeak arautzen ditu. Horrela, berari gustatuko litzaioke Udal honek irizpide bat bakarra edukitzea gai hauek abordatzeko garaian. Izan ere, duela gutxi, txosten juridikoaren arabera, Legea betez, bateragarritasun-eskaera bat atzera bota zuten, eta, bere aburuz, espedientea tramitatu den era ikusitakoan edo mahai gainean dituzten txosten juridikoak kontuan izanda, ez da zentzugabea Atxiki Gabeko Zinegotzien proposamena. Alkateak aurkezturiko mozioak, berriz, bere iritziz, irizpide-unitarioa erakusten du, baina, bere aburuz, Udal batek ezin du osoko bilkura batean etorkizunean antzeko egoeratan aurkez daitezkeen eskaera guztiak onartzeko jarrerarik hartu, hori gehiegizkoa izango litzatekeelako. Berak nahitanaiezkotzat jotzen du eskaturiko bateragarritasunak ez diola batere eragiten ekoizpenari, presentziari eta akordaturiko dedikazioari. Hori, argi eta gabi dago, Udala kudeatzen dutenei gehien kezkatzen dien puntua dela. Eta, ez hori bakarra, baldintza eta premisa horiek betetzeak ez du esan nahi, besterik gabe, bateragarritasuna emango zaienik, izan ere, hori lortzeko Legeak ezartzen dituenak bete behar direlako. Bere iritziz, hor urrutiegi joaten dira. Hirugarren puntuari dagokionez, berriz, jakinak badira, egin bitez, gaineratu du. Hortaz, bere taldeak bateragarritasunak kentzeko proposamenaren alde bozkatuko du.

* Queralt jaunak (Atxiki Gabeko Zinegotziak) Peralta andreak esandako zehaztu du, hain zuzen, Legeak berak salbuespen-kasu batzuek onartzen dituelako, eta horietako bat Osasuneko langileria da. Horregatik, egun jende zenbaitek administrazio publikoko lanak zerbitzu pribatuan egiten dituenekin

botepronto y con una lectura escasa, la que ha dado tiempo, ignora el informe de la Técnico correspondiente, la Ley e incluso la realidad social.

* Interviene la Sra. Peña (EAJ/PNV) diciendo que entiende que hay supuestos de incompatibilidad que vienen marcados por la Ley, aspecto ya señalado por el Sr. Queralt. Le gustaría que en este Ayuntamiento se siguiera un criterio unitario a la hora de abordar los temas. Hace poco, conforme al informe jurídico, se ha desestimado una solicitud de compatibilidad cumpliendo la Ley y por la manera en que se ha tramitado el expediente o los informes jurídicos que hay encima de la mesa, considera que no es descabellada la propuesta de los no adscritos. En relación a la moción que presenta el Alcalde, sí que se refleja el criterio unitario, pero considera que un Ayuntamiento no puede posicionarse en un Pleno en el sentido de aceptar cuantas peticiones puedan ser presentadas en un futuro en similares situaciones. Pone la premisa de que la compatibilidad solicitada en nada perjudique la productividad, la presencia y la dedicación acordada en su puesto de trabajo, que evidentemente es una de las cuestiones fundamentales que les tiene que preocupar como gestores del Ayuntamiento, pero hay más, el que se cumplan estos requisitos y estas premisas no hace automático que se otorgue la compatibilidad, para ello hay que salvar los obstaculos que vienen marcados en la Ley y considera que esto es ir demasiado lejos. En relación con el tercer punto, si se conoce, que se haga. Su grupo votará a favor de la propuesta de eliminar las compatibilidades.

* Interviene el Sr. Queralt (Concejales no Adscritos) haciendo una puntualización a la Sra. Peralta ya que la propia Ley admite una serie de exclusiones y una de ellas es al personal sanitario. Por eso hoy en día hay gente que complementa sus servicios a la administración pública con servicios



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

osatzen ditu, Legeak halaxe aurreikusten duelako. Gauza bera gertatzen da —dio— irakaskintzan, salbuetsita daudenen zerrenda zabal samarra dago, baina orain ikusten ari den kasuan ez da horrelakorik.

* Peralta andreak (PP) asko pozten dela zehaztapen hori egin izanaz, eta halaber Legea betetzeaz, esan du.

* Murua jaunak (Atxiki Gabeko Zinegotziak) esan du, lehen Ezker Batua-Berdeak-eko ordezkariak aitatu duen moduan, kontu honek bi alde dituela: alde batetik, soilik alde juridikoa, non denek bai baitakite —zeintzuk diren, legeek diotenaren aurka, herri-administrazioan dauden guztiek dituzten erantzukizunak— erantzukizun ezaz gain, legez kanpo jardungo zuketela. Bestalde —dio—, alde etikoa, soziala edo morala egongo litzateke. Bere aburuz, afera hau, erabakiak berak izan ditzakeen ondorioz gain, bigarren honen inguruan kokatu behar da, hots, kuantifikatu egin behar da zer suposatzen duen bateragarritasunak. Bere irudiko Udal honetan, ziur aski, ez du suposatuko diru asko aurreztuko denik, ezta enplegu asko sortuko denik, baina herritarrei — batez ere bizi duten egoera ekonomiko honetan— zer nolako apustua egiten duten argi erakutsiko diete. Egiatan, publikoki onartzen dute egoera ekonomikoa kezkagarria dela, eta batzuen arabera enpleguaren sorrera 2012 edo 2013 arte atzeratuko da. Hori horrela, egoera honen aurrean, eurek uste dute administrazio publikoek etika eta moral dosia handiak dituzten neurriak hartu beharko lituzketela, eta saihestu lanarik ez duten —eskubide bat delako— jende pila dagoen bitartean, bi lan egin ditzakeen pertsonei bidea ematea. Horrez gain, harrituta daude, Udaleko Alderdi Sozialistako zinegotziei entzun dietelako udal langileei aurpegiratzen, funtzionarioak hainbat abantaila dituztela, egoera horren baitan prebenda zenbait. Eta kasu honetan badirudi, abantaila horiez gain, enpresa pribatuan lana egiteko aukera eman nahi dietela, eta hor, euren aburuz, kontraesana ematen da. Mozio

privados, pero precisamente porque la Ley lo contempla. Lo mismo ocurre con la docencia y hay una lista bastante importante de exclusiones, pero no se da el caso que estamos ahora tratando.

* Contesta la Sra. Peralta (PP) diciendo que le alegra mucho que le haga esa puntualización y le alegra que cumplan con la Ley.

* Interviene el Sr. Murua (Concejales no Adscritos) diciendo que como ha apuntado antes el representante de Ezker Batua-Berdeak evidentemente esta cuestión tiene dos aspectos, el aspecto jurídico, excusivamente jurídico, en el cual todos aquellos que ejercemos la práctica de lo público sabemos qué responsabilidades tenemos si vamos contra aquello que está acordado en las leyes. Estaríamos actuando de manera ilegal, además de irresponsable. Luego estaría el aspecto ético, social o moral y es ahí donde se está intentando situar esta problemática al margen de las posibles repercusiones de la propia medida, es decir, cuantificar lo que supone el hecho de aplicar la compatibilidad. En este Ayuntamiento probablemente no supondrá un ahorro cuantitativo, ni la creación de mucho empleo, pero da un mensaje claro a la ciudadanía de cual es la apuesta que hacen, sobre todo en esta situación económica que se atraviesa. Públicamente se está aceptando que la situación económica es delicada y que la creación de empleo se va a retrasar hasta el 2012 o incluso hasta el 2013, según dicen algunos. Ante este panorama, desde las instituciones públicas es necesario adoptar medidas que tengan unas fuertes dosis de moral y de ética y evitar que mientras que hay un montón de gente que no tiene acceso al trabajo, que es su derecho, posibiliten que haya personas que puedan desarrollar dos trabajos al mismo tiempo. Se sorprende porque oye en boca de concejales del Partido Socialista del ayuntamiento, reprochar a los trabajadores del ayuntamiento su situación de funcionarios, de todas las prebendas que da esa



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

alternatiboari dagokionez, berriz, esan behar dute jatorrizko mozioa pasa den ekainean aurkeztu zutela, eta Udalbatzara eramateko zein gai sartu behar diren erabakitzeko ahalmena duenak ezarritako ibilbidea egin behar izan du. Aitzitik, Alderdi Sozialistak aurkezturiko mozioak, besteak behar izan duen 6 hileko epea arin asko pasa du. Gainera, bere iritziz, botere publikoek, interes jakin batzuren baitan, kontua manipulatzen dute. Gaineratu duenez, Alderdi Sozialistak eginiko proposamenaren inguruan ez dute inolako txosten juridikorik ikusi, aldiz, bere taldeak eginiko proposamena sei hile atzeratu da txosten juridiko bat egitearren. Eta, berriro dio, kasu honetan ez dago txosten juridikorik, aitzitik, inolako baldintzarik bete gabe osoko bilkurara ekarri da. Beraz, bada, argi eta garbi dago jarrera hori nagusikerian oinarriturikoa dela, une honetan Udaleko kudeaketa daramanak baliatzen duena. Horrez gain, beretzat oso deigarria da hirugarren puntua, oharkabean pasatzen dela dirudiena, hain zuzen ere. Bere aburuz, administrazio publikoek obligazioa dute Legeriak dioena betetzen den ikusteko, eta badirudi une honetan Alderdi Sozialistak errekonozitzen ari dela Legeaz trufatu daitekeela. Gainera, eurek planteatzen duten mozioa onartuz gero, badirudi denek haien konplizeak egin nahirik dabiltzala. Bere irudiko Alderdi Sozialistak akats handia egiten du mozio hori aurkeztuz, eta jakina, bere taldeak ez du aldeko bozkarik emango.

situación, pero parece ser que además de esas prebendas quieren dar los beneficios de poder trabajar en la empresa privada al mismo tiempo, cosa que resulta contradictoria. En cuanto a la moción alternativa que se presenta, decir que la moción original se presenta en junio de este año, ha necesitado de un recorrido, impuesto por el que tiene la capacidad de tomar las decisiones en cuanto a qué temas van o nó a los Plenos, y sin embargo la moción que presenta el Partido Socialista se salta esos 6 meses de la manera más liviana. Considera que hay una instrumentalización de los poderes públicos en base a unos intereses muy concretos. No tienen ningún informe jurídico de la propuesta que hace el Partido Socialista y sin embargo, la propuesto hecha por su Grupo se demoró durante seis meses para que se hiciera un informe jurídico. En este caso no existe informe jurídico y sin embargo se trae al Pleno sin pasar ningún requisito. Es evidente una actitud basada en la prepotencia que da el hecho de estar ocupando en este momento la gestión en el Ayuntamiento, es evidente la instrumentalización de esa gestión. Le llama poderosamente la atención el punto tercero, que parece que pasa desapercibido. Cree que son la Administraciones Públicas las que tienen la obligación de velar por el cumplimiento de lo que está legislado y parece ser que en este momento se está reconociendo por parte del Partido Socialista que esta práctica se está dando en estos momentos y que permite burlarse de la Ley, queriendo además que todos sean cómplices de esa actitud aprobando la moción que plantean. Le parece que es un grave error el que comete el Partido Socialista planteando esta moción y evidentemente, no va a contar con los votos de su grupo.

* Acosta jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak), Murua jaunak aitatu dituen prebenda-kopuruari erantzunez, ez daki noizbait prebendaz, pribilegioz edo abantailaz hitz egin izan duten, baina uste du esan dezaketela aurretik doazela. Izan ere,

* Interviene el Sr. Acosta (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) contestando en referencia a la cantidad de prebendas que dice el Sr. Murua han reprochado al funcionariado, no sabe si alguna vez se ha hablado de prebendas, privilegios o

duela egun gutxi derrigor bete beharreko neurri batzuk hartu zituzten, eta zenbaitek neurri horien aurka bozkatu zuen. Hori horrela, ondoren duela gutxi Gipuzkoako Aldundiak 2008ari buruz argitara emaniko datuak aitatu ditu. Horien arabera, Errenteriak, 2008ko PFEZren bataz bestekoa 17.255 € izanik, 87-88. ohorezko lekuan okupatzen zuen. Hortaz, aurretik doazela baieztatzeko, ez du abantailaz eta pribilegioz hitz egingo. Aitzitik, 2008an etxe honetako soldata-masa 11.326.000 €-koa zen, eta 300, 350, 400 edo 500 lagunen artean zatitzeko eskatzen dio, orduan ikusiko baitu aurretik doazela. Ondorioz, bada, aurretik baldin badoaz, toki guztietan normala izaten da itxarotea atzetik datozenei, edo bestela, ibilera mantsotu atzekoek harrapa ditzaten. Ikuspuntu horretatik, uste dute, batzuetan, prebenda edo pribilegioz hitz egin zezaketela. Euren aburuz, beraz, mozioak ez du benetan enplegu sormena eragozten.

ventajas, pero lo que si se puede decir es que van por delante, de hecho hace pocos días se tomaron unas medidas de obligado cumplimiento y también ha habido gente que ha votado en contra de esas medidas. Hace referencia a la publicación reciente de datos de Diputación de Gipuzkoa correspondientes al 2008 en los que se establecía que el municipio de Errenteria tenía el honor de hacer el número 87-88 con 17.255 € de media I.R.P.F correspondientes al 2008. Para apoyar su afirmación de que van por delante no va a hablar de ventajas ni de privilegios. En el año 2008 la masa salarial de esta casa fue de 11.326.000 €, le pide que lo divida entre lo que quiera 300, 350, 400 ó 500 personas y el resultado nos dirá si vamos por delante. Cuando se va por delante, lo normal en todos los sitios es esperar a que se incorporen los que vienen detrás o en todo caso, amortiguar el paso para que puedan alcanzarles. Desde esta perspectiva algunas veces se podría hablar de prebendas o privilegios. La existencia de la moción cree que no impide realmente la creación de empleo.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak), mozio alternatiboa aurkez zitekeenaren inguruan esandakoak direla eta, espero du besteek ez izatea memori ahula, izan ere, gogoratzen baitu edozein mozioren aurrean, beste alternatibo bat aukera litekeela. Azkena ez da eztabaidatzen premiazkoa den edo ez, baldin eta, aurrekoaren ondorioz egina bada. Hori mila bider egin dute, eta ez justuki Alderdi Sozialistak eta Alkateak mozioa aurkeztu dutelako, esan du. Bere aburuz funtzionatzeko modu bat, irizpide moral edo etiko edo arlo horretako edozein eskatu behar bada, horrek, ukituriko pertsonen borondatezkoa izan behar du, eta ez dagokio Udalari moralari buruzko klaseak ematea. Bere iritziz, eurek mozio alternatiboa egin badute, teknikariak bateragarritasunak kentzea zuzena dela dioen bezala, era berean, badakite ohikoena dela ukituek errekurrituz gero, usaian arrazoia ematen diela, eta ondorioz, partxisean ariko

* Interviene el Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) refiriéndose a la cuestión anteriormente planteada sobre si cabía o no presentar la moción alternativa, espera que no se tenga la memoria fragil y recuerda que a la presentación de cualquier moción, cabe presentar alternativa. Esto no se debate si es de urgencia o no, es consecuencia de la moción presentada. Se ha hecho una y mil veces y no precisamente el Partido Socialista, que por cierto, es quien presenta la moción y no el Alcalde. Cree que si hay que pedir unas formas de funcionamiento, un criterio moral o ético o lo que fuere en este campo tiene que ser voluntario de las propias personas afectadas y no le compete al Ayuntamiento dar clases de moral. Considera que lo que mueve a presentar la alternativa es que de la misma manera que la Técnico informa que eso es lo correcto, retirar la compatibilidades, también se conoce que lo habitual



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

bailiran, lehenengo zenbakira itzuli behar izaten dutela. Gaineratu duenez, berak ez daki ba ote dagoen inor Udaleko lanez gain, bateragarritasun-baimenik gabe alegia, lana egiten duen gremio edo langilerik, nahiz eta, orain baietz komentatzen dioten. Horregatik, hain zuzen, ipini dute hirugarren puntua, hau da, ez dira zuzenbidean lizentziatuak direnaz bakarrik arduratu, baizik eta, aplikatzen bada, denei aplikatu dadila. Horregatik esaten du, norbait egoera horretan egongo balitz, aitortzeko urratsa eman dezan.

es que cuando los afectados recurren, generalmente se les da la razón y habría que volver, si fuera el parchis, a la casilla número uno. Sigue diciendo que no tiene constancia de que existan otros gremios o trabajadores que también estén realizando de facto un trabajo además del que desarrollan en el Ayuntamiento, aunque le comentan que podría ser que sí y de ahí viene el tercer punto, es decir, no nos centremos solo en esta norma para los licenciados en derecho. Si se aplica, debería de aplicarse para todos. Por eso dice que si alguien está en esa situación, dé el paso de declararlo.

Mintzaldiak amaitu ondoren.

Finalizadas las intervenciones.

Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak udal taldeak aurkezturiko **mozio alternatiboa —** akordio honen azalpen-zatian jasota dagoena— bozkatu dute.

**Sometida a votación la moción alternativa** presentada por el Grupo Municipal Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak que consta en la parte expositiva del presente acuerdo.

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 10 botorekin (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, PP) eta aurkako 11 botorekin (EAJ/PNV, Alkarbide, Ezker Batua-Berdeak, Atxiki Gabeko Zinegotziak),

El Pleno de la Corporación por mayoría, con 10 votos a favor (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, PP) y 11 votos en contra (EAJ/PNV, Alkarbide, Ezker Batua-Berdeak, Concejales no Adscritos)

**E R A B A K I D U**

**A C U E R D A**

**Atzera botatzea** Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak udal taldeak aurkezturiko mozio alternatiboa, akordio honen azalpen-zatian jasota dagoena.

**Desestimar la moción alternativa** presentada por el Grupo Municipal Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak que consta en la parte expositiva del presente acuerdo.

Jarraian.

Seguidamente.

Ondoren, Atxiki Gabeko Zinegotziek aurkeztu eta Ezker Batua-Berdeak taldeak babesturiko mozioa —akordio honen azalpen-zatian jasota dagoena— bozkatu dute.

**Sometida a votación la moción presentada** por Concejales no Adscritos y suscrita por Ezker Batua-Berdeak que queda reflejada en la parte expositiva del presente Acuerdo.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 11 botorekin (EAJ/PNV, Alkarbide, Ezker Batua-Berdeak, Atxiki Gabeko Zinegotziak) eta aurkako 10 botorekin (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, PP),

El Pleno de la Corporación por mayoría de 11 votos a favor (EAJ/PNV, Alkarbide, Ezker Batua-Berdeak, Concejales no Adscritos) y 10 votos en contra (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, PP),

**E R A B A K I D U**

**A C U E R D A**

**Onartzea** Atxiki Gabeko Zinegotziek aurkeztu eta Ezker Batua-Berdeak taldeak babesturiko mozioa, akordio honen azalpen-zatian jasota dagoena.

**Estimar la moción inicial presentada** por Concejales no Adscritos y suscrita por Ezker Batua-Berdeak que queda reflejada en la parte expositiva del presente Acuerdo.

**7. Galderak eta eskariak.**

**7.- Ruegos y preguntas.**

* Ferradas jaunak (Ezker Batua-Berdeak) esan du, berak bere aldetik zein talde gisa, gogoratu nahiko lukeela igandean zendu zen Errenteriako Jose Ramon Jimenez “Montxo”, eta batez ere goraipatu nahi du pertsona horrek ijito arrazako pertsonei buruzko estereotipo eta topikoen inguruan eginiko lana. Hori esan ostean, jakin nahi du zergatik Udalak exekutatzen dituen partida zenbait eta zergatik ez beste batzuk. Esaterako, publizitate eta propagandari buruzko partida oso-osorik exekutatu zen pasa den irailerako, aldiz, aurrekontuan onartuta dagoen Lurralde Bus sisteman hiriko autobusak sartzeko partida oraindik ukitu gabe dago. Orduan, jakin nahi du zergatik partida zenbait urtea amaitu baino lehen amaituta dauden, eta besteak, urtea amaitzear egonda ere, oraindik ez diren burutu.

* Interviene el Sr. Ferradás (Ezker Batua-Berdeak) manifestando que quisiera, tanto a nivel personal como a nivel de grupo, recordar al vecino de Errenteria Jose Ramón Jimenez (Montxo) que falleció el pasado domingo y sobre todo reconocer el trabajo de esta persona a la hora de romper estereotipos y tópicos sobre las personas de etnia gitana. Una vez dicho esto, formula una sola pregunta y es que le gustaría saber por qué en este Ayuntamiento se ejecutan unas determinadas partidas y por qué otras no se ejecutan. En concreto la partida de publicidad y propaganda se ejecutó en su totalidad en el pasado mes de septiembre, en cambio la partida para la incorporación de los autobuses urbanos al sistema Lurralde Bus aprobada en los presupuestos en vigor todavía está sin ejecutar. Pregunta a qué criterio obedece que unas partidas se ejecuten antes de acabar incluso el año y otras, cuando se está a punto de acabar el año, todavía no se hayan llevado a cabo.

* Alkateak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) erantzun du Udalaren martxa normalaren arabera funtzionatzen duela, hau da, Olentzero edo Erregeetako Kabalgata urte amaiera arte aplikatzen ez diren bezala, Inauterietakoa otsailean aplikatzen da. Garraioaren aferari dagokionez, hots, txartel-

* Interviene el Alcalde (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) respondiendo que va en función de la marcha normal del Ayuntamiento, lo mismo que la de Olentzero o la cabalgata de Reyes no se aplica hasta últimos de año, la de carnavales se aplica en el mes de febrero. En cuanto a la de transporte, esto



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

makinen kontuarekin oraindik negoziatzen, tramitatzen (edo nahi den bezala deitu) ari dira. Espero du urtea amaitu baino lehen gauzatzea, baina ordura arte ezinezkoa izan zaie Aldundiarekin hizketan ari direlako, eta oraindik afera ez dutelako argitu, baina, lehen esan duen moduan, urtea amaitu aurretik burutu nahi dute.

es, las canceladoras, todavía está el tema en negociación, tramitación o como se quiera llamar. Aspira y espera no acabar el año sin aplicarla, pero aun no ha sido posible porque con Diputación se estan manteniendo conversaciones y todavía está el tema sin dilucidar, pero espera que el tema llegue a buen puerto antes de fin de año.

Jarraian.

Seguidamente.

* Cano andreak (Atxiki Gabeko Zinegotziak) esan du duela egun pare bat jakin zutela ez zela gehiago argitaratuko Udalaren barneko informazio-buletina. Hortaz, jakin nahi dute —7000-proiektuaren inguruan lanean hasitako pertsona bat zenez hori egiten zuena, eta bestetik, ez dakitenez ordura arte udal-langileek lanorduetan jasotzen zituzten albisteak jasoko duten— zeintzuk izan ziren irizpideak lan horretan hasteko, zein lan burutu den eta, zein irizpide izan diren kontratua amaitutzat jotzeko.

* Interviene en euskera la Sra. Cano (Concejales no Adscritos) manifestando que hace unos días supieron que no se iba publicar más el boletín informativo interno del Ayuntamiento. Por dicho motivo, puesto que se trataba de una persona que se había contratado en relación al proyecto-7000, y por otra parte, como desconocen si los trabajadores municipales van a recibir la información que venían obteniendo, desean saber cuáles han sido los motivos para que se iniciara en dicho trabajo, qué tareas se han realizado y cuáles han sido las razones para darlo por concluido.

* Alkateak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan du, baietz, enplegua sustatzeko 7000-proiektua dela eta kontrataturikoa zela, eta zeuzkan egitekoen artean udal-buletina egitekoa zeukala. Orain lan-kontratua amaitu zaio, eta beraz, lan hori gehi egiten zituen beste batzuek jada ez ditu egiten, gaineratu du.

* Interviene el Sr. Alcalde (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) manifestando que efectivamente iba ligado a una persona que fue contratada con el proyecto 7000 de fomento de empleo y entre sus tareas se le asignó la creación de ese boletín, ahora ha terminado el contrato de trabajo y por lo tanto, esa, como otras tareas que venía realizando ya no las puede desarrollar.

Jarraian.

Seguidamente.

* Murua jaunak (Atxiki Gabeko Zinegotziak) esan du aurrekontuaren exekuzioz hitz egin dela, eta berak, hein batean uler dezake Alkate jaunak, aurrekontua baldintzen arabera exekutatzen dela esanez eginiko planteamendua. Berak, ordea, jakin nahi du ea oraindik ukitu gabeko partidarik badagoen, gutxienez hasierako fasean, bere ustez, hein batean

* Interviene el Sr. Murua (Concejales no adscritos) manifestando que se ha hablado de la ejecución presupuetaria y puede entender correcto en alguna medida el planteamiento del Sr. Alcalde, en cuanto que el presupuesto se va ejecutando en la medida en que se dan las condiciones para ello. Su pregunta es si no hay partidas que están sin iniciarse



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

bederen exekutatzen hasteko baldintza eman direlako. Zehazki igogailuak jartzeko laguntzei buruz ari da, bere irudiko —dagoeneko eskaeraren bat egingo zutelako—, ez dutelako zertan itxaron denek abendura arte.

habiéndose dado en este momento, a su entender, las condiciones para que las mismas se hubieran ejecutado o al menos estuvieran en la fase inicial de autorizado. Se está refiriendo concretamente a las ayudas por la instalación de ascensores, porque imagina que en lo que va de año habrá habido alguna petición, sin esperar todos a pedirla en diciembre.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan du urtean zehar frogatu ahal izan dutela partida hori sartzea akats bat izan zela, izan ere, horretarako ipinitako diruarekin ezinezkoa baita eskari guztiei aurre egitea. Gainera, atzeko urteetako eskariak ere bazeuden, eta teknikarien ustetan, oso zaila zen laguntza horiek emateko arrazoizko formula bat bilatzea. Horregatik geratu da mugitu gabe partida hori, gaineratu du.

* El Alcalde Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) responde que efectivamente, a lo largo del año se comprobó que fue un error haber metido esa partida. El motivo es que con la cantidad asignada era materialmente imposible atender a la demanda. Había también demandas atrasadas de años anteriores que no se habían concedido y a entender de los técnicos era harto difícil encontrar una fórmula racional y razonable para conceder dicha ayuda. Por tanto, no se ha podido afectar esa partida.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Finalizadas las intervenciones.

-------------

----------

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, Alkateak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 09:20 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin Akta hau egin dut Erkidego Autonomoko paper ofizialean, _____zenbakitik _____ra, eta nirekin batera Alkateak sinatu du. Egiaztatzen dut.

Y sin más asuntos de los que tratar, el Presidente levanta la Sesión, siendo las 09:20 horas del día de la fecha. Y para constancia de lo tratado y de los acuerdos adoptados, extiendo la presente Acta en los folios números ______ al ______ del papel oficial de la Comunidad Autónoma, firmando conmigo el Alcalde. Certifico.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net